

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 18ko 220/2017 Foru Agindua, Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektu aldatuaren ingurumen eraginaren adierazpena formulatzen duena

“Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektua” izapidetzeko, ingurumen eraginaren ebaluazio arrunteko prozedura egin behar da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, arautu moduan.

Prozedura horren esparruan, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2015eko abenduaren 18an, aipatutako proiektuari buruzko hasierako agiria jaso zuen Ingurumen Kalitatearen Zerbitzutik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 34.2 artikuluan arautzen duen gutxieneko edukiaren arabera.

Ingurumen eraginaren azterlanaren irismen agiria egin baino lehen, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 34.3 artikuluan ezartzen duenari jarraiki, ingurumen organoak kontsulta egin zien herri administrazio hauei eta pertsona interesatuei (zein erakundetatik jaso zen erantzuna adierazten da):

URA Uraren Euskal Agentzia:	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.	
Arabako Natur Institutua.	
Ekologistak Martxan Araba.	
Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea (GADEN).	
Eguzki talde ekologista.	
Hontza.	
Gaia elkartea.	
Mendizale Federazioa. Ingurumen Atala.	
UAGA.	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.	√
Arabako Kontzejuen Elkartea.	
SEO BIRDLIFE.	
Guardiako Udala.	√
Lezako Udala.	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla.	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Ur Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.	√

Hona hemen lehen kontsulta horretan jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 15/320 espedientean eta http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA_Generico_FA&cid=1224017774981&language=es_ES&pageid=1223997813771&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Generico_FA%2FDPA_generico_web_orrian):

- Guardiako Udalak, 2016ko urtarrilaren 8an, bere Hirigintza Aholkularitza Teknikoaren txostena bidali du. Horretan, proiektuak eragingo dien lursailek dituzten hirigintza kalifikazioak zehazten dira: denak dira lurzoru urbanizaezinak. Lezako biltegi berrian proiektatutako obrak nabarmentzen dira, eta adierazi da baso lurzoru urbanizaezinean egoteaz gain “Toloño-Kantabria Mendilerroa EBIL zona” gaineratutako baldintzaren eraginpeko lurzoruan daudela kokatuta. Esan da Guardia - Arabako Errioxa Eremu Funtzionalaren LPPren arabera Lezako biltegi berria “Babes berezia (Natura 2000 Sarea)” adierazpeneko lursailetan kokatuko dela eta proiektatutako eroanbideek “Intereseko bestelako enklabeak” eta une-unean “Eremu higagarriak edo higatzeko arriskuan daudenak” diren lursailak zeharkatzen dituztela. Azkenik, historia eta arkitektura ondareari dago-kionez, azaldu da proiektuak 8. (“Armentaranako herrigunea”) eta 50. (“La Tejerako kokagunea”) zenbakidun ustezko arkeologia zonei eragin ahal diela; Guardia udalerrian daude biak.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, urtarrilaren 18ko txostenean, adierazi du sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa historia eta arkitektura ondareari dagokionez osatugabea dela eta ez dituela aipatzen “eremutik hurbil dauden inbentarioko elementu txikiak (LEA-76, LAG-314 eta LAG-441) ezta ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun izeneko monumentu-multzo kategoriarekin kalifikatutako kultura ondarea ere (ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren arabera)”. Nolanahi ere, “ez dago esku hartzeak eragiten dioten historia eta arkitektura ondareko elementu bereizirik”.

- URA Uraren Euskal Agentziak urtarrilaren 25ean bidali du txostena eta hiru alderdi balioetsi ditu:

- a) Sor daitezkeen eraginei buruz: adierazi da aurreikuspenei jarraiki obren eraginak oso murriztuak izango direla baina egikaritzean zortasunak eta erreketako landaredia errespetatu beharko direla.

- b) Ur hornidurari eta egon daitezkeen isuriei buruz: zonan ur hornidura behar bada, bi-dezkoak diren baimenak eskatu beharko dira. Egon daitezkeen isuriei dagokienez, jarraibide batzuk eman ditu, adibidez, urak kutsatzea saihestea, makinez eta instalazio lagungarriez ibilgurik edo zortasunik ez okupatzea. Halaber, indusketarako material biltegien zonak zehaztu behar direla nabarmendu du.

- c) Indarrean dagoen legeriari buruz: gogorarazi du URARI baimena eskatu behar zaiola jabari publiko hidraulikoan, zortasun zonan eta garbiketari jarduketari egiteko.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak 2016ko urtarrilaren 25ean bidali du txostena eta adierazi du etorkizuneko ur hornidurako eroanbidetik hurbil irailaren 30ko 165/2008 Dekretuan, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan, eta araudi hori eguneratzeko zirriborroan dagoen lurzati bat dagoela (01034-00001 kodea). Geldoen zabortegia da. Horregatik, 4/2015 Legeak, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, ezartzen duen moduan, lurzoruaren kalitate adierazpen bat izapidetu beharko da lege horren 23. artikuluan jasotako egoeretako bat gertatuz gero. Era berean, lurrak mugitzeko prozesuan kutsadura zantzuak egonez gero, Ingurumen Sailburuordetzari eman beharko zaio horren berri.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2016ko otsailaren 3an bidali du txostena eta adierazi du proiektuak ukitutako zonen eremuan ustezko arkeologia zona hauek daudela: “El Sotillo 1, El Sotillo 2, Villacardieleko kokagunea, Rubielgoseko kokagunea, La Tejerako kokagunea eta Armentarako herrigunea”. Hori dela eta, aurretiko azterlan bat egin beharko da, eta horretan oinarrituta erabakiko du Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak arkeologia proiekturik egin behar den ala ez. Azkenik, adierazi dute proiektatutako jarduketa “ardoaren eta mahastien paisaia kulturalaren” barruan garatuko dela eta, beraz, edozein jarduketak arestian aipatutako sailaren baimena beharko duela.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak 2016ko otsailaren 3an bidali du txostena eta, horretan, etorkizuneko proiektuaren eragin nagusiak xehekatu ditu.

a) Naturagune babestuetako (NGB) eraginak: proiektatutako jarduketek ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZri eta haren periferiako babes zonari (PBZ) eragingo diete. Eragindako hiru intereseko habitatei (6420, 4090 eta 6220*) dagokienez, adierazi da eragin hori onargarria dela, azalera eskasari eragiten diolako, eta saihegarria dela, prebentzio eta zaharberrikuntza neurri egokiak hartuz. Azpimarratu da gertagarria dela Lezako biltegiko obren zonan hegazti harkaiztarren hazkuntza garaiari eragitea.

b) NGBtik kanpoko floraren eta faunaren gaineko eraginak: oro har, ez da pentsatzen eragin handiak egongo direnik, baldin eta prebentzio neurri egokiak hartzen badira.

c) Igarobide ekologikoak: ez da eragin handirik aurreikusten.

d) Paisaia: zona Arabako Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan dago; beraz, Lezako lur biltegiaren paisaia eragina saihesteko neurriak hartu beharko dira.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak otsailaren 8an bidali du txostena eta adierazi du proiekturako "ez duela iradokizunik edo oharrik aurkeztu behar".

Kontsultak egiteko lehen izapidearen ostean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, ingurumen organo gisa, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak ingurumen eraginaren azterlan arruntaren irismen agiria igorri du, 2016ko ekainaren 8an.

Kontsulta aldiko ekarpen guztiak bildutakoan, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 41. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, ingurumen organoak ingurumen eraginaren adierazpen proposamen bat egin du.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2017ko uztailaren 10ean emandako ingurumen eraginaren adierazpenean ezarritako ebaluazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. 21/2013 Legeak 41. artikulua hiru-garren epigrafean jasotako xedapenei jarraituz eman da foru agindua eta argitaratu da ALHAOn.

1. Jendurrean jartzeko izapidearen eta eragindako herri administrazioei eta interesdunei eginiko kontsulten emaitzaren laburpena.

Kontsulta aldiaren ostean, 2017ko otsailaren 17an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak "Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektu aldatua" jaso zuen; X. eranskinean "ingurumen eraginaren azterlan" bat biltzen zuen.

2017ko otsailaren 21ean, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 36. eta 37. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, jendurrean jartzeko eta eragindako herri administrazioei eta interesdunei kontsulta egiteko bigarren prozesua egin zen (25. ALHAO, 2017ko martxoaren 1ekoa). Erakunde hauetatik jaso zen erantzuna:

URA Uraren Euskal Agentzia.	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.	
Arabako Natur Institutua.	
Ekologistak Martxan Araba.	
Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea (GADEN).	
Eguzki talde ekologista.	
Hontza.	
Gaia elkarte.	
Mendizale Federazioa. Ingurumen Atala.	
UAGA.	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.	
Arabako Kontzejuen Elkarte.	
SEO BIRDLIFE.	
GASTEIZ ZERO ZABOR	

Guardiako Udala.	√
Lezako Udala.	√
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla.	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.	√
Lur Ureztatuen eta Uraren Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusia (MAPAMA).	√

Hona hemen jendaurrean jartzeko aldi horretan jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 15/320 espedientean):

- URA Uraren Euskal Agentziak bi txosten bidali ditu: lehenengoan, 2017ko martxoaren 17koan, adierazi du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari jakinaraziko zaiola eta etorkizunean biek egingo dutela txostena; bigarrenean, 2017ko ekainaren 7koan, zenbait alderdi balioetsi ditu:

a) Sor daitezkeen eraginei buruz: adierazi dute aurreikuspenei jarraiki obren eraginak oso murriztuak izango direla; izan ere, sei errekatxo gurutzatzen diren arren, gurutzatzeko dauden landa bideak baliatzen dira eta, gainera, ingurumen eraginaren azterlanak kontuan hartu ditu URAk lehen egindako gogoetak.

b) Ur hornidurari eta egon daitezkeen isuriei buruz: zonan ur hornidura behar bada, bidezkoak diren baimenak eskatu beharko dira.

c) Indarrean dagoen legeriari buruz: gogorarazi du URARI baimena eskatu behar zaiola jabari publiko hidraulikoan, zortasun zonan eta garbiketan jarduketara oro egiteko.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, 2017ko martxoaren 17ko txostenean, zera adierazi du: "agiri teknikoa aztertuta, ikusi da proposaturiko ibilbideak ez diela eragiten beren historia edo kultura ondareagatik babestuta dauden elementu edo higieziei eta, beraz, ez dagoela inolako oztoporik izapidetzeko".

- Lur Ureztatuen eta Uraren Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusiak (MAPAMA), 2017ko martxoaren 17ko txostenean, ohartarazi du laster obra hauek egingo direla: "Bastida-Briñas-Abalos-San Vicente de la Sonsierra-Guardia-Navaridas-Elciegoko lur ureztatuak eta Ebroko ezkerlaldeko beste batzuk hobetzeko eta modernizatzeko proiektu integratuko urtegi osagarriaren separata. III. fasea, urtegi erregulatuak. III. zona, Guardia-Navaridas-Elciego eta beste batzuk (Araba)". Halaber, adierazi dute obra horren tarte bateko hoditerian tarte batzuek "Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektuarekin" bat egiten dutela.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak 2017ko martxoaren 30ean bidali du txostena eta haxe adierazi du proiekturako landa bideak erabiltzeari buruz:

a) Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari eta bideen titularrei baimena eskatu behar zaie obrak egin baino lehen.

b) Erregistratutako nekazaritza bideak behar bezala berrezartzean, adierazi da bidezoruaren zabalera osoan 10 km/m²-ko hareaz zigitatu behar dela.

c) Sustatzaileak obrak amaitu ostean ezkutatuta egon daitezkeen akatsen erantzukizuna gain hartu behar du.

Azkenik, Nekazaritza eta Basozaintzako ALPri dagokionez, esan dute jarduketak "bateragarriak" direla lurzoruaren okupazioari, nekazaritza azpiegituren gaineko eraginari eta zonako nekazaritza ustiatuegi bideragarritasun ekonomikoaren gaineko ondoreei dagokionez.

- Guardiako Udalak, 2017ko martxoaren 31n, bere aholkularitza teknikoaren txostena bidali du. Horretan, proiektuak eragingo dien lursailek dituzten hirigintza kalifikazioak zehazten dira: denak dira lurzoru urbanizaezinak. Azkenik, etorkizunean obrak egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak zerrendatu dira: udalaren obra baimena, instalazioa interes publikoa

dela dioen Arabako Foru Aldundiaren adierazpena, Arabako Foru Aldundiaren baimena obraren zati bat Arabako Hegoaldeko Mendilerroak HBBZ-BBZn egoteagatik, URAREN baimena erreka gurutzaguneetan, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren aldeko txostena landa bideen erabilerari buruz, Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena “Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturalari” dagokionez eta Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren baimena ustezko arkeologia zonen inguruan.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak 2017ko martxoaren 31n bidali du txostena. Horretan, aztertu du nola sartu diren arestian irismen agiriari begira egindako gogoetak eta, bukatzeko, hauxe esan du: “Zuzendaritza honen ustez, IEAk planteatutako neurriak nahikoak eta egokiak dira ziurtatzeko ez dagoela eragin ohargarririk ez Arabako Hegoaldeko Mendilerroak HBBZ-BBZn ez proiektuaren eremuan dauden natura inguruneke beste balio batzuetan”


- Lezako Udalak, 2017ko apirilaren 6an, bere aholkularitza teknikoaren txostena bidali du. Horretan, proiektuak eragingo dien lursailek dituzten hirigintza kalifikazioak zehazten dira: denak dira lurzoru urbanizaezinak. Azkenik, etorkizunean obrak egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak zerrendatu dira: udalaren obra baimena, instalazioa interes publikoa dela dioen Arabako Foru Aldundiaren adierazpena, Arabako Foru Aldundiaren baimena obraren zati bat Arabako Hegoaldeko Mendilerroak HBBZ-BBZn egoteagatik, URAREN baimena erreka gurutzaguneetan, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren aldeko txostena landa bideen erabilerari buruz eta Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena “Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturalari” dagokionez.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2017ko apirilaren 11n bidali du txostena eta adierazi du proiektuak eragindako zonen eremuan ingurumen eraginaren azterlaneko planoak ondo kokatu ez duen ustezko arkeologia zona bat dagoela, “Armentarako herrigunea”, eta haren kokapen zuzenaren planoak bidali du. Hori dela eta, zona horren gaineko aurretiko azterlan bat egin beharko da, eta horretan oinarrituta erabakiko du Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak arkeologia proiekturik egin behar den ala ez.

2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Proiektuaren deskribapena.

2.1. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa.

Proiektua Leza eta Guardia udalerrien artean gauzatzekoa da, Arabako hegoaldean, Kantauriar mendikatearen oinean, eta hein batean bai ES2110018 “Araba hegoaldeko mendilerroak” HBBZ-BBZri bai haren periferiako babes zonari eragiten die.



1. figura: kokapena

Proiektuaren eremuak ALHko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan dauden bi arlori eragingo lieke, alegia, "Kantauriko mendikatea" eta "Kantauriko mendikateko hegoaldeko oina" parajeei.

Era berean, "ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko denean," dago jasota.

2.2. Proiektuaren deskribapena.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua da proiektuaren sustatzailea, eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak berak dihardu funtsezko organo moduan.

Proiektuaren helburu nagusia da eskualdearen ur hornidura hobetzea; eskualdeak, egun, ur baliabide hauek dauzka: Kantauriko mendikatearen hegoaldean dauden iturburu txikien erregulazioa eta mendikate horretan dauden lurpeko urak hartzeko zundaketen ustiapena.

Zundaketa horietako bat, hain zuzen "Lezakoa", egun konektaturik dago izen bereko herriko biltegi erregulatzailarekin eta urez hornitzen ditu hala herri hori nola Arabako Errioxa urez hornitzeko sistemako adarra ere, urak eskualdearen sartaldera eramaten dituena. Proiektu honekin, ekialdeko eremua ere urez hornitzeko aukera ekartzen da; horrela, edateko uraren baliabide iturri osagarri bat izango litzateke eskura, egungo eskaerari erantzun ahal izateko.

Proiektuak jarduketa hauek hartzen ditu barne:

Lezako biltegi berria eta bi kutxatila berri eraikitzea.

Aurreikusten da 755 m³-ko kotan biltegi berria eraikitzea, 2.500 m³-ko biltegitratze edukiera eta gutxi gorabehera 634 m²-ko oinplanoko azalera (660 m²-koa sarbide zona ere hartzen badugu aintzat) dituena.

Oinplano zirkularreko biltegia izango litzateke, prefabrikatutako hormigoi armatuzko hormekin eraikia. Zola gaineko gehieneko ur laminaren kota 4,60 m-koa da. Biltegi berri horretan gorde beharreko ura "Leza" zundaketa etxolaren ondoan dauden hartutako iturburuetatik dator. Gainera, biltegiak zundaketa horretatik datorren hoditeria oztopatuko luke eta, puntu horretatik, ura grabitateagatik jaitsiko litzateke, eroanbidearen bidez, Leza herrigunearen alboan dagoen biltegi erregulatzaileraino.

Biltzeko kutxatila berri bi, etxola modukoak, eraiki nahi dira pistaren ertzean; oinplanoan 2,20 x 2,20 m-ko barne dimentsioak izango dituzte eta, hor, mozketa giltzak eta ura gordetzeko bi konpartimentu instalatuko dira. Lurpeko aldea hormigoi armatuz eraikiko da; aireko aldea, bistako adreiluz; eta estalkia hormigoi armatuzko plaka bat izango da, isurki bakarrekoa, adreiluzko fabrikak koroatzen dituen hormigoizko perimetro uztai batean bermatuta.

Obra soberakinen kudeaketa: betelana biltegiaren hegoaldeko lurzatian.

Biltegiko obraren indusketako lur gehienak obran bertan erabiliko dira. Hala ere, soberakinak egongo direla aurreikusita, Arabako Errioxako Urkidetzaren jabetzako lurzati batean kokatzea aurreikusi zen, 740 m-ko kotan, biltegi berritik hurbil (Lezako 4. poligonoko 514. lurzatia). Irismen agiria betelan hori Arabako Hegoaldeko Mendilerroak HBBZ-BBZren barruan ingurumen sentikortasuneko hezegune batean egin behar ez zela xedatu ostean, sustatzaileak ez egitea erabaki du.

Soberakinen kudeaketa kontratistaren ardura izango da; proiektuaren eremutik kanpoko obretan edo, beharrezkotzat joz gero, beste zona batean betelan bat egiteko erabili ahalko ditu. Azken kasu horretan, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenari, eta ekainaren 26ko 112/2012

Dekretuari, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko denari, men egin beharko die. Beraz, uren eta biodibertsitatea babestearen arloan eskumena duten organoek egindako nahitaezko txosten loteslea eduki beharko du.

Zenbait iturburu zundaketari gehitzea.

Proiektuak zonako zenbait iturburu kutxatilarekin konektatzea hartzen du barne; iturburuok biltegi berrirako ur harpenean sartuko dira. Lehendik baden arketatik (785 m-ko kotan) biltegi-rainoko konexioa, gutxi gorabehera 260 m luze baita, dagoen bidearen azpian lurperatuta igaroko da. Lehendik badiren 4 iturburutako harguneak, gehienez, eroanbide horri lotuz joango dira pistan. Zanga irekitzeko eta hoditeria instalatzeko lan kalea bideko 4 metroko zabalerara mugatuko da.

Lezako biltegi erregulatzailaren eta Guardiako biltegiaren arteko konexioa.

Eroanbidea Lezako biltegi erregulatzailera sarreran hasi, eta Guardiako biltegiaren amaitzen da. Gutxi gorabehera 4.700 m luze da eta 200 mm-ko diametroa duen burdinurto nodularrezko hoditeriarekin proiektatzen da. Trazadura dagoen nekazaritza bidetik igarotzen da, gutxi gorabehera Guardiako biltegiaren parera iritsi arte; une horretan, iparralderantz bira egiten du eta, trazadura ia lerrozuzena hartuta, biltegi-raino joaten da. Hasiera batean, lan kalea 6 m zabal izango zela zegoen aurreikusita. Hala ere, irismen agirian ezarritako zehaztapenetan oinarrituta, azkenean gehienez 4 m-ko zabalerarekin proiektatu da, gutxi gorabehera bideko zabalerarekin bat etortzeko.

Guardiako biltegiaren eta Oionerako eroanbidearen arteko konexioa.

Obra hori hasierako agirian islatuta zegoen (ingurumen eraginaren ebaluazio arruntaren aurretiko aldia), baina sustatzaileak proiektuan eta ingurumen eraginaren azterlanean adierazi du jadanik gaituta dagoela; beraz, ez da jarduketarik egin behar.

Guardiako biltegi-giltza etxola berria.

Etxola berri bat ezarriko da Guardiako biltegiaren ondoan eta, hor, proiektatutako eroanbideak funtzionatzeko beharrezkoak diren balbulak instalatuko dira. Haren dimentsioak 4,5 x 2,0 m izango dira, eta honako hauek izango ditu: hormigoï armatuzko lurpeko zati bat, morterozko luzitudun bistako adreiluzko kanpoko hormak eta isurki bakarreko hormigoï armatuzko plakadun estalkia; azken horren gainean, teila gorria ipiniko da.



2. figura: berde argiz, ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZ; lerro berdean, haren periferiako babes zona.

3. Ebaluazio eremuko ingurumen arazoak. Ingurumen kalitate eta hauskortasuneko area nagusiak.

Jarraian, proiektuaren alde bakoitzean oinarrituta eragina jaso dezaketen ingurumen alderdi nagusian aztertuko dira:

3.1 Lezako biltegi berria eta bi kutxatila berri eraikitzea:

Eraikuntza horrek 660 m² okupatzen ditu ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZren barruan. Hala ere, hasiera batean ez dio eragin handirik sortzen florari, Pinus nigra birpopulatzeko zona batean dagoelako, mailakatuta eta aurretik aldatuta dagoen lursail batean. Nolanahi ere, zaintza eta jarraipen neurriak ezarri beharko dira bermatzeko behar-beharrezkoa den azalerari baino ez zaiola eragiten; halaber, neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira, eragina jaso dezakeen eremuaren ingurunea landareztatuz.

Eragin garrantzitsuena obrak egin bitartean gertatuko da, makinaren zaratak, lur mugimenduak, indusketak, etab. direla eta. Ildo horretan eta faunan izan dezakeen eraginari dagokionez, haitz zonatik hurbil dagoenez, zonan dauden espezie harkaiztarren eta harrapari gautarren (adibidez, saia, arrano beltza, belatz handia eta hontz handia) hazkuntzari eragiten ez zaion aldietara mugatu beharko dira obrak. Era berean, HBBZ-BBZren eremua Bonelli arranoaren interes bereziko area gisa dago kalifikatuta; espezie hori "galzoriko" gisa dago katalogatuta eta hori kudeatzeko berariazko plan bat dago (irailaren 28ko 622/2001 Foru Agindua). Beraz, ebazpen honen ingurumen baldintzetan, obrak basa faunako espezieentzat erabakigarriak diren aldietan ekiditeko neurri bat ezarri da.

Halaber, jarduketa horrek naturagunearen barruan azpiegitura bat okupatzea dakar; horra joan beharko da maiz kudeatzeko, mantentzeko, etab.

IEAren ondorioetarako, biltegia eta bi arketa berriak egikaritzeak eragin ahal dion eremua ingurumen sentikortasuneko zona dela adierazten da eta, horri dagokionez, ingurumena babesteko berariazko plan bat ezarri beharko da.

Ur biltegiako eraikin berria "Kantauriko mendikatea" paisaia berezi katalogatuaren eremuan dago. Biltegiaren inguruko aldea zaharberitu beharko da, aldatutako eremuak inguruneke geomorfologia naturalarekin bat etorrarazteko, eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezie autoktonoen ereintzak eta landaketak egin beharko dira.

Paisaia katalogatuaren gaineko paisaia eragipena txikiagotze aldera, fatxada margotzeko kolore kriptiko bat hautatu beharko da, ingurune horretako lurzoru urbanizaezineko beste eraikuntza batzuetako kolorearekin bat etortzen dena, eta funtsezkoa izango da paisaia integratioko neurriak, zonako zuhaitz-espezie autoktonoak landatzean dautzanak, barne hartzea. Halaber, eraikinaren arkitektura ezaugarriak Arabako Errioxako eskualdeko antzeko eraikinetako arkitektura tradizionalako berezkoekin bat etorriko dira.

3.2 Lau iturburu zundaketari gehitzea:

Zona hori, aurrekoak bezala, ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZren barruan dago. Kasu horretan, Europar Batasunaren intereseko beste habitat bati eragin ahalko litzaioke, zehatz-mehatz, honi: 6420 "Molinion-Holoschoenioneko belar altuko larre heze mediterraneoak" habitata. Hoditeria badagoen pista baten azpitik igarotzen denez, hasiera batean, zona balizatuta eta egokiak diren prebentzio neurriak hartuta, ez litzaioke zonako florari eragin beharko.

Faunari dagokionez, esku hartze tokitik oso hurbil haitz zona dago, hegazti harkaiztarren habitata eta habia egin dezaketen zona. Beraz, aurreko ataletan egindako gogoetak, mehatxatutako hegaztien hazkuntza garaietan lanak mugatzeari buruzkoak, kontuan hartu beharko dira hor.

IEAren ondorioetarako, eroanbidea Natura 2000 Sarearen barruan egikaritzeak eragin ahal dion eremua ingurumen sentikortasuneko zona dela adierazten da eta, horri dagokionez, ingurumena babesteko berariazko plan bat ezarri beharko da.

Eroanbidea lursailean sartzeko, gehienez lau metroko eragin zabalera ezarri beharko da, eta zangaren egikaritzea, ahal den neurrian, dagoen bidera mugatu beharko da.

3.3 Lezako biltegi erregulatzailaren eta Guardiako biltegiaren arteko konexioa:

Guztia landa bideen azpitik igarotzen denez, egokiak diren babes neurriak hartzen badira, ez da eragin handirik aurreikusten.

Guztira sei erreka (Done Erroman, Janda ibaia, Villacardel, Rioseco eta La Tejera) eta izenik gabeko lau ibilgu txiki zeharkatzen dira. Ibilgu gehienak emari txikia edo iraunkorra ez den emaria dute eta gehienek landaredi urria daukate edo oso aldatuta eta antropizatuta daude. Erreka horiek guztiak dauden pistak erabiliz eta ondoren hustubideak lehengoratzuz zeharkatzen dira. Nolanahi ere, dagoen landaredi eskasa hondatzea saihestu beharko da, baita isuriak eta uren uhertasuna ere.

Ibilbidearen erdialdean, hoditeriak geldoen biltegi batetik, 01034-00001 gisa katalogatuta dagoenetik, hurbil igarotzen dira.

Eroanbideko azken tartean, Guardiako biltegitik hurbil, ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZren PBZn sartzeko da eta 6220* "Brachypodium retusum espezieko bazka xerofiloa" lehentasuneko intereseko habitatari eragiten zaio. Eremua bere ezaugarri naturalekin bat etorritz zaharberritzeko neurriak xedatu beharko dira eta zona tokiko haziko jatorria duten landare autoktonoez landareztatzea planteatuko da.

Eroanbideko azken tartean, Guardiako biltegiarekiko konexioa baino lehen, "Armentarako herrigunea" ustezko arkeologia zona zeharkatzen da.

4. Ingurumen organoak egindako analisi teknikoaren emaitza.

Azaroaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 40. artikuluan xedatzen duenari jarraiki, jotzen da jendaurrean jartzeko izapidea zuzen egin dela, baita ingurumen eraginarekin azterlanaren idazketa ere, horrek aipatutako araudiaren VI. eranskinean jasotako egitura eta edukiak kontuan hartu baititu.

Ingurumen eraginak ebaluatzeko eta haien ezaugarriak zehazteko erabilitako metodologia egokitzat jotzen da. Lehenengo eta behin, behar bezala hauteman dira obretatik eta hornidura sistemaren funtzionamendutik eratorritako eragin faktoreak. Bigarrenik, eragina jaso dezakeen ingurumeneko elementuak zehaztasunez eta errealtatearekin bat etorritz deskribatu dira. Azkenik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, ezarritakoaren arabera deskribatu, xehatu eta kalifikatu dira eraginak.

Azpirarra daiteke jendaurrean jartzeko aldirian, lehen nabarmendu den moduan, proiektua baldintzatzen duten eta aintzat hartu behar diren bi alegazio aurkeztu direla:

- Lur Ureztatuen eta Uraren Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusiak (MAPAMA), 2017ko martxoaren 17ko txostenean, ohartarazi du laster obra hauek egingo direla: "Bastida-Briñas-Abalos-San Vicente de la Sonsierra-Guardia-Navaridas-Elciegoko lur ureztatuak eta Ebroko ezkerreko beste batzuk hobetzeko eta modernizatzeko proiektu integratuko urtegi osagarriaren separata. III. fasea, urtegi erregulatzailak. III. zona, Guardia-Navaridas-Elciego eta beste batzuk (Araba)". Halaber, adierazi dute obra horren tarte bateko hoditerian tarte batzuek "Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektuarekin" bat egiten dutela.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2017ko apirilaren 11n bidali du txostena eta adierazi du proiektuak eragindako zonen eremuan ingurumen eraginaren azterlaneko planoak ondo kokatu ez duen ustezko arkeologia zona bat dagoela, "Armentarako herrigunea";

eta haren kokapen zuzenaren planoan bidali du. Hori dela eta, zona horren gaineko aurretiko azterlan bat egin beharko da, eta horretan oinarrituta erabakiko du Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak arkeologia proiekturik egin behar den ala ez.

Alegazio horiek aintzat hartzeko, prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarri dira ingurumen baldintzen atalean (5. puntua).

4.1 Natura 2000 Sarearen gaineko ondoreak

Txosten honetan aztergai den proiektuan xedatutako jarduketek ES2110018 "Arabako Hegoaldeko Mendilerroak" HBBZ-BBZri eragingo liokete. Ingurumen eraginaren azterlanak (IEA) egokiro identifikatzen ditu HBBZ-BBZ horretarako hautatutako funtsezko elementuak edo babestu beharrekoak.

Aurrekoa gorabehera, ur biltegiaren eta kutxatilen obrek eragin negatiboa izango dute espazio horretan, nagusiki, obra aldian (zaratak, sastrakak kentzea, indusketa lanak, makinaren zirkulazioa, etab.). Eragin horiek xehetasunez eta egokiro aztertu dira IEAn, eta pentsatzen da bai IEAn bai ingurumen eraginaren adierazpen honen hurrengo atalean bildutako prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzea nahikoa dela bermatzeko proiektua espazioa babesteko helburuekin bateragarria dela.

5. Ingurumen baldintzak.

IEAren 8. atalean, proiektua ingurumenean txertatzeko zenbait neurri, zeinak oro har zuzentzat jotzen diren, aipatzen dira. Beraz, egokia da haiek ezartzea, azaldutakoarekin bat etorritik. Dena dela, pentsatzen da neurri osagarri batzuk ere hartu behar direla, proiektuak eragin ahal dion eremuan ingurumen eragin negatiboak saihesteko edo zuzentzeko, eta ingurumen agirian jasotako neurrietako batzuk berriz definitu behar direla. Hain zuzen:

A) Proiektua egikaritzeko, ebazpen honetako zehaztapenei jarraituko zaie eta, ebazpenarekin kontraesanetan ez dagoen guztian, proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko ingurumen organoari aurkeztutako agirietan jasotakoari ere bai. Obrak egitean eraikuntza proiektuari edozein aldaketa eragiten bazaio, hau da, baldin eta proiektuaren ezaugarrietan edo ekintzetan aldaketa nabarmenak badakartza eta espero ziren ingurumen eraginak aldarazten baditu, jakinarazi egin beharko da, bai eta baimena lortu ere, ingurumen organo honek onartu baino lehen.

B) Ingurumen eraginaren azterlanean eta eraikuntza proiektuan azaldutako neurriak, hots, eraginak saihestekoak eta ingurumena zuzentzekoak, hartu beharko dira. Obra kontratatzeke baldintzen agiriak ingurumen eraginaren azterlanean esplizitatutako ingurumen baldintza guztiak bildu beharko ditu, baita adierazpen honetan adierazten direnak ere, ingurunea babesteko eta obraren ingurumen eraginak txikiagotzeko asmoz.

C) Obrak hasi baino lehen, sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari ohar-taraziko dio, obraren ingurumen jarraipen zuzena egiteko eta ingurumen eraginaren adierazpen honetan zein ingurumen eraginaren azterlanean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeke helburuarekin.

D) Txosten honetan adierazten diren ingurumen sentikortasuneko zonetan (biltegi berriaren eta kutxatilen area, erreken gurutzaguneak eta "Armentarako herriguneko" ustezko arkeologia zona), zehazki mugatuko da eta seinalez adieraziko da proiektuak eragingo dien azalaren ingurua, balizak eta egokiak diren seinaleak jarritik. Seinالاتze eta aurretiko zuinketa horiek egiten direnean, aurrean egon beharko dute obraren zuzendaritzak Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren aldetik, kontratako obra buruak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari batek.

E) "Armentarako herriguneko" ustezko arkeologia zonan, aurretiko azterlan bat egin beharko da; horretan oinarrituta erabakiko du Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak arkeologia proiekturik egin behar den ala ez eta, hala badagokio, egokiak diren babes neurriak ezarriko ditu.

F) Obrak hasi baino lehen, kontratistak “Bastida-Briñas-Abalos-San Vicente de la Son-sierra-Guardia-Navaridas-Elciegoko lur ureztatuak eta Eboko ezkeraldeko beste batzuk hobetzeko eta modernizatzeko proiektu integratuko urtegi osagarriaren separata. III. fasea, urtegi erregulatuak. III. zona, Guardia-Navaridas-Elciego eta beste batzuk (Araba)” delako proiektuko obra zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko du, bermatzeko proiektu horren eta “Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektuaren” artean ez dagoela interferentziarik.

G) IEAn aipatze den moduan, ur biltegi berria eta horrek dakartzan instalazio lotuak halako moduan eraikiko dira non ez diren inguruneke eraikuntza tradizionalekin diskordanteak izango. Horretarako, kriptikoak diren eta erraz integratu ahal diren materialak erabiliko dira. Kanpoko fatxadak kolore kriptiko batez eta akabera mateaz (adibidez, berde iluna) margotuko dira, lursailean ezkutatzeko.

H) Eroanbideen eta sare hidrografikoko eragindako erreken arteko gurutzaguneetako obrak gauzatzean, eraikuntza prozedura bereziak ezarri beharko dira, ahalik eta lur mugimendu gutxien egin dadin eta balio natural handieneko zonetan eraginik egon ez dadin. Honako arau hauei jarraituz egin beharko dira lan horiek:

– Sare hidrografikoan aurreikusita dauden gurutzaguneak zuhaitz- edo zuhaixka-landare-dirik gabeko lekuetan egingo dira gehienbat, makina txikiekin, “lan kaleak” ez dezan 4 m-tik gorako zabalera eduki. Gune horiek alde aurretik identifikatu eta mugatuko dira, obrako bisita baten bitartez, eta bisita horretan honako hauek izango dira: obraren zuzendaritza Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren aldetik, kontratako obra burua eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari bat.

– Sare hidrografikoko ibaiertzetan ez da jarriko ez kutxatilarik, ez bentosarik ez eta bestelako fabrika obrarik ere. Ingurumen kalitate eta hauskortasun handieneko areetatik kanpo jarriko dira hustubideak edo ibilgura isurtzeko guneak egiteko beharrezko diren fabrika obrak. Horretarako, aurrez Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak lekuan bertan adieraziko du zein diren area horiek. Ibaiertz horietan ezingo da obrako materialik biltegitatu, ez eta lurrik edo indusketa materialik metatu ere.

– Ibaietako landarediari dagokionez, lanak hasi baino lehen zegoen antzeko egoera lortzeko, erriberako berezko espezieez landareztatuko dira lanek eragindako ibai ertzetan.

I) Landaredi naturalez estalitako lursailtako landaredia zaharberritzeko programa osoa gauzatu beharko da, bai eta, oro har, eraikuntza lanek eragin dieten eta aurreikuspenei jarraiki ingurumen lehengoratzeko eskatuko duten eremuetan ere. Programa horren barruan sartuko da, halaber, proposatzen diren fabrika obrak paisaia txertatzea (biltegi erregulatuak, kutxatilarik, giltza etxola, etab.). Landaredia zaharberritzeko eta paisaia integratzeko programa gauzatu mailan garatu beharko da, txosten honetan adierazitako baldintzak jasoz. Programa horrek honako eragiketa hauek hartu beharko ditu barne obraren eraginpeko eremu osoan:

– Lursaila aurretik destrinkotzea, moldatzea eta profilatzea, lursail naturalarekiko igarotze eta ukipen guneetan behar bezalako doiketa eta osaera fisiografikoa lortzeko.

– Kalitate oneko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,3 m-koa, eta ondoren profilatzea.

– Lurra landu eta harrotzeko eta ondoren fintzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko eta hidroereiteko egoki prestatzeko.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako, zopizar espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, eragina jaso dezakeen eremuko klimarako eta lurzoru motarako egokia; Ingurumen Zuzendaritzak ontzat eman beharko du.

J) Ingurumen sentikortasun zonetan eta zaharberitu beharra izango dela aurreikusi den zonetan kolektoreek hartuko duten eremuan ezarri beharko den ingurumena lehengoratzeko eta paisaia txertatzeko neurri bat landaketak egitea izango da, eta eskatzen den ingurumena zaharberitzeko programan jasoko da hori. Hauek dira jarduketa eremuetan egin beharreko landaketen ezaugarriak:

– Hautatutako espezieak: IEAn jasotakoak jotzen dira egokitzen (Quercus coccifera, Q. ilex, Rosmarinus officinalis, etab.).

– Landareak sartutakoan, zuloa edo zanga bete egingo da, kalitate oneko landare hondoan lehen ekarpena eginez, behar bezala trinkotutako geruzetan, 20 cm-z 20 cm; Hareazko edo legarrezko 1/3kin zuzenduta egongo da iragazkortasuna areagotzeko, kilo bat ongarri organiko konpostatu gehituz.

– Zuloa kalitate oneko lurrez betetakoan, 40 cm-ko erradioa eta 10 cm-ko altuerako ildo bitarteko zuhaitz txorkoa egingo da gainazalean, eta ureztapena egingo da: 10 l/landare.

– Landare guztien oinarrian belarren aurkako oinarrizko babes bat jarriko da, "Horsol" motakoa, berdea, 110 g/m²-koa, 1 m-ko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko, eta 0,6 m agerian utziz.

– Sare hidrografikoko erriberako eremuak lehengoratu beharreko zonetan, landaketak eta aldaxken landaketak egingo dira, eraginpean izan daitezkeen zuhaitzak lehengoratzeko.

– Landaketa garaia: abendutik otsailera.

K) Bermatu beharko da zurezko landare estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpen aldian (landaketatik 2 urtera), behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Hemen honako hauek hartu beharko dira kontuan: ur defizita den garaietan ureztatzea, landare hilak ordeztzea, zurkaitzak eta oinarriko babesak ordeztzea, ongarritatzea, eraketa inausketak, sasiak kentzea, etab.

L) Kutxatilak, biltegiak eta giltza etxea kokatzeko proposaturiko lekuetan, landare lurrari dagozkion horizonteak era selektiboan kenduko dira handik, eta ahal dela berehala birbanatuko dira edo, ezin bada, metatu egingo dira aldundi honetako ingurumen organoak baimentzen duen lursailan. Metaketa gehienez 1,5 metro altu izango da eta ebakidura trapezoidaleko masetan egingo da, trinkotzea saihesteko asmoz. Landare lur hori obrak eragindako eta txosten honetako goragoko paragrafoetan deskribatutako gainazaletan landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

M) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi es-tankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabili-takoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori hormigo-i hondarretara, eraikuntza materialetara, lurretara eta abarretara hedatzen da. Baimendutako obra hondakindegia edo zabortege batera bidaliko dira. Bide zoruak kentzean ateratzen diren eraikuntza eta eraipen hondakinak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko denak, ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

N) Ez da zerbitzugarrikerik, makineria parkerik edo produktu kutsagarrien biltegerik ezarriko txosten honetan zehaztu diren ingurumenari dagokionez sentikorrek diren zonen eremuetan. Ingurumenari dagokienez sentikorrek diren zonen aurretiko zuinketan, area horien kokapena ere zehaztuko da.

O) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

P) EAEko hegazti nekrofagoak kudeatzeko planean eta Bonelli arranoa kudeatzeko planean ezarritakoa beteko da une oro, haien babes helburuak erdiesten direla ziurtatzeko, bereziki, lanak egiteko datei eta espezieentzat erabakigarriak diren aldiei dagokienez. Zonan dauden espezieak eta haien habiagintzako areak aztertuta, egokiagotzat jotzen da otsailaren 1etik uztailaren 15era arteko aldia (Bonelli arranoarentzako aldi erabakigarria) IEAn proposaturikoa baino (otsailaren 1etik irailaren 1era arte). Aldi horretan ezingo da eraikuntza lanik egin espezie horientzako interes bereziko arean.

6. Ingurumen zaintza.

IEAren 9. atalean (“Ingurumen zaintza eta jarraipeneko programa”) planteatzen den moduan, ingurumen teknikari espezializatu batek gainbegiratuko ditu obrak eta aurreikusitako arkeologia ikuskapena.

Egokitzat jotzen da foru aldundi honetako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak modu koordinatuan garatu beharreko ingurumen arloko jarraipen lana egitea, eraikuntza aldian eta ondorengo ustiapen aldian, aplikatutako ingurumena zaharberritzeko neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna jakiteko eta ebaluatzeko eta, gabeziak gertatuz gero, horiek zuzentzeko.

Obrak bukatu ostean, proiektuaren sustatzaileak obraren bukaera adierazten duen dokumentu bat bidali beharko dio ingurumen organoari. Horren bidez, eraikuntza lanak egin diren bitartean gertatutako gorabehera guztien berri emango du eta azalduko du noraino bete diren ingurumen eraginaren azterlanean, neurri zuzentzaileen proiektuan eta adierazpen honetan ezartzen diren babes neurriak eta neurri zuzentzaileak.

Era berean, ingurumen eraginaren azterlanean eta proiektuan zenbatetsi diren aldaketa-aurreikuspenei dagokienez egon diren desbiderapenak antzemateko eta ebaluatzeko txostena egingo du ingurumen organoak. Aurreikusi ez diren ondorioak gertatzen badira edo aldatutako gainazaletan gehikuntza badago, Ingurumen eta Hirigintza Sailak beharrezkoak diren eta txosten honetan adierazten diren neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu eta beharrezkoak diren kreditu gehigarriak gaituko ditu.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. “Arabako Errioxako ur hornidurako sistema Lezako zundaketatik handitzeko proiektu aldatuaren” ingurumen eraginaren adierazpena formulatzea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin, ingurumen-ebaluazioari buruzkoarekin, bat etorritz, ingurumen eraginaren adierazpena ingurumen arloko ebazpen erabakigarria izango da gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen eraginaren adierazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN